

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKASLEENTZAKO ARGIBIDE ZERBITZUAREN GIDA

2019/2020 IKASTURTEA

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	1
2. Lantaldea: harremana eta kokapena	1
3. UPV/EHUra Sartzeko Programa: ekintzak eta nori zuzenduta dauden	2
3.1. Jarduera Praktikoak	3
3.2. Unibertsitate Orientaziorako Azokak	6
3.3. Jardunaldi Irekiak	7
4. UPV/EHUra Sartzeko Programaren egutegia	8



Gida hau Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako eta Berritzeguneetako orientatzaileentzat da.

Helburua da 2019/2020 ikasturtean UPV/EHUra Sartzeko Programaren baitan egingo diren ekintzen **laburpena** eskaintzea euren orientatzaile-lanean laguntzeko.

2019/2020 IKASTURTEA

1. AURKEZPENA

Ikasleentzako Argibide Zerbitzua Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzaren mende dagoen zerbitzu bat da, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) hiru campusetan dago.

Zerbitzu honen helburua da informazioa eta laguntza ematea unibertsitatera etorriko diren ikasleei, unibertsitateko bertako ikasleei, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei, Helduen Hezkuntzako ikastetxeei (HHI), Berritzeguneei eta UPV/EHUko unibertsitate ikastegiei.

Zerbitzuak helburu horrekin planifikatzen eta garatzen ditu **UPV/EHUra Sartzeko Programa** eta nagusiki unibertsitate aurreko ikasleei zuzendutako orientazio-ekintzak.

Zerbitzuak antolatutako ekintzez gain, beste errektoreordetza eta ikastegi batzuek ere unibertsitate aurreko ikasleentzat bideratutako orientazioko jarduerak antolatzen dituzte (eskualdeetara bisitak, Zientzia Astea, udako campusa, etab.) Informazio gehiagorako: www.ehu.eus



2. LANTALDEA: HARREMANA ETA KOKAPENA

ARABAKO CAMPUSA

IONE VALLÉS
(Orientazio teknikaria)
945 01 3394

Arabako Campuseko Errektoreordetza
Izarduy komandantea, 2
01006 Gasteiz

GIPUZKOAKO CAMPUSA

MIREYA DE CASTRO
(Orientazio teknikaria)
943 01 8256

Ignacio M^a Barriola eraikina (Ikasgelategia)
Elhuyar plaza, 1
20018 Donostia

BIZKAIKO CAMPUSA (LEIOA)

JON TORRES
(Orientazio teknikaria)
946 01 3159

Apia bidea - Gizarte eta Komunikazio Zientzien
Fakultateko behea. Sarriena auzoa, z/g
48940 Leioa

BIZKAIKO CAMPUSA (BILBO)

JOVITA MELLA
(Orientazio teknikaria)
946 01 7121

Larrako Etxea informazio bulegoa
Agirre Lehendakaria, 81
48015 Bilbo

www.ehu.eus/iaz

iaz@ehu.eus

3. UPV/EHUra SARTZEKO PROGRAMA: EKINTZAK ETA NORI ZUZENDUTA DAUDEN

Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak hainbat ekintza jartzen ditu martxan unibertsitatean hasiko diren ikasleei ahalik eta informazio gehien emateko eta UPV/EHUko ikasketak aukeratzeko laguntzeko.

Ekintzak unibertsitatean hasiko diren ikasleei eta beren familiei, orientatzaileei eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta daude.

1.

Batxilergoa
Goi Mailako Heziketa Zikloak
Arte eta Kirol Irakaskuntzak

JARDUERA PRAKTIKOAK

2020ko urtarrila -otsaila
(Nahitaezkoa da izena ematea)

2.

Batxilergoa
Goi Mailako Heziketa Zikloak
Arte eta Kirol Irakaskuntzak

JARDUNALDI IREKIAK

2020ko martxoa
(Nahitaezkoa da izena ematea)

UNIBERTSITATE ORIENTAZIORAKO AZOKAK

2020ko urtarrila - otsaila
(Sarrera librea interesatuta dauden pertsonentzat)

UPV/EHUko IKASTEGIEK BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN ESKAINITAKO INFORMAZIO SAIOAK

Ikasturte osoan zehar
(Ikastetxeetako orientatzaileek UPV/EHUko ikastegiekin zuzenean
harremanetan jarri beharko dute. Webgunea kontsultatu).



Informazio gehiago:

www.ehu.eus/eu/web/sou/unibertsitatera-etorriko-diren-ikasleei-zuzendutako-ekintzak

3.1. JARDUERA PRAKTIKOAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta UPV/EHUK izenpetutako hitzarmenak UPV/EHUn jarduera praktikoak egiteko aukera ematen die honako ikasketetako **1. maila** burutzen ari diren Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleei:

- Batxilergoa
- Lanbide Heziketako Goi Mailako Heziketa Zikloak
- Arte Irakaskuntzak
- Kirol Irakaskuntzak

HELBURUAK

Ikasleei aurkeztea jarduera egiten duen Fakultatean edo Eskolan lantzen den ezagutza arloa.

Jardueran aipatzen diren ikasketek gaurko gizartean duten garrantzia azaltzea

Bokazioak piztea

Bigarren Hezkuntzako orientatzaileei eta irakasleei UPV/EHUKo ikasketak hobeto ezagutzeko aukera ematea, unibertsitate aurreko ikasleekin egiten duten orientazio lana errazteko.

NAHITAEZKO IZEN-EMATEA ETA PLAZA MUGATUAK

Ikasle bakoitzak gehienez ere 5 jarduera praktikoetan parte hartu ahal izango du



KONTUAN IZAN

- Lekuak **ZOZKETA** bidez esleituko dira. **Izen-ematea noiz egin den**, beti ere epe barruan izan bada, **EZ du inolako garrantzirik**.
- 5 jarduera praktiko eska daitezke, gehienez.
- Jarduera praktiko bakoitzean, nahi adina saio eska daitezke.
- **Baldintza dituzten jarduera praktikoekin kasuan** (FIEz Blai eta Kimika Bizirik), **ikastegiko orientatzaileek egin beharko dute** haien ikastegiko ikasle guztien eskaera.



IZENA EMATEKO PROZEDURA

2019/2020 ikasturteko Jarduera Praktikoaren eskaintza Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko web orrian egongo da eskuragarri: www.ehu.es/iaz

Ikasturte honetan, **izena emateko epe bakarra** jarriko dugu. Hauxe izango da izena emateko prozedura:

1. urratsa: Ikasleen izen-ematea

Ikasleak ezarritako epean egin beharko du parte-hartzeko eskaria; eskariak bere ikastegiko orientatzaileen egiaztapena jaso beharko du geroago.

Baldintzak dituzten jarduera praktikoaren kasuan (FIEz Blai eta Kimika Bizirik), orientatzaileek:

1. **Haien ikastegiko ikasleen eskaerak egin beharko dituzte GAUR bidez** (abenduaren 2tik 11ra)
2. Interesatzen zaizkien saioak hautatu eta irakasle laguntzaileen datuak bete beharko dituzte formulario baten bidez (abenduaren 2tik 13ra).

IKASLEAK ETA ORIENTATZAILEAK

Eskaera egiteko epeak
2019ko abenduaren 2tik 11ra

www.ehu.es/iaz
webgunearen bidez egingo da



Ohar garrantzitsua! Lekua EZ da behin betikoa; ikaslea zozketaren emaitzen zain geratuko da eskaturiko jarduera praktikoetan parte hartu ahal izateko (3. urratsa).

2. urratsa: Ikasleen egiaztapena orientatzaileen aldetik

Orientatzaileek jardueretan izena eman duten ikasleek **ikastegi horretakoak** direla eta **lehen mailan** daudela egiaztatu beharko dute, ezarritako epeen barruan. Egiaztapen hori eginda, ikasleen eskariak "eskatuta" egoeran geldituko dira, lekuen zozketaren zain.

ORIENTATZAILEAK

Egiaztapenerako epeak
2019ko abenduaren 12tik 13ra

GAUR-en bidez egingo da:
<http://gestion.ehu.es/gaur>



Ohar garrantzitsua! Orientatzaileek aipatu egiaztapena egin ezean, ikasleek EZINGO dute jarduera praktikoetan parte hartu.

3. urratsa: Zozketa

Lekuak ausaz esleituko dira eta **itxarote-zerrenda** bat sortuko da ere izena eman duten beste ikasle guztiakin. Baldintzak dituzten jarduera praktikoen kasuan, lekuak ikastegika esleituko dira.

IKASLEAK ETA ORIENTATZAILEAK

Zozketaren emaitzak
kontsultatzeko data
2019ko abenduak 18

Zozketaren emaitza
www.ehu.eus/iaz orrian
eskuragarri egongo da



Ohar garrantzitsua!

- Zozketan lekurik lortu ez duten ikasleek **EZ** dute jarduera praktikoa parte hartuko.
- Ikasleren batek jarduera praktikora bertaraterik ez badu, **Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko web orritik** uko egin beharko dio bere plazari, jarduera gauzatu baino 5 egun lehenago.
- Lekuren bat hutsik geratuko balitz, ikasle berri bati esleituko zaio itxarote-zerrendaren ordena zorrozki jarraituz. **Ikasleek** posta elektronikoko bat jasoko dute esleituriko lekua baieztatuz.



Informazio gehiago:
www.ehu.eus/eu/web/sou/jarduera-praktikoak



3.2. UNIBERTSITATE ORIENTAZIORAKO AZOKAK

Azokak hiru larunbatetan jarraian egingo dira, bat campus bakoitzeko. Bertan izango dira UPV/EHUko unibertsitate ikastegietako irakasleak beren ikastegiko graduari buruzko informazioa emateko, bai banaka **standetan**, bai taldeko **informazio-saioen** bidez inguruko geletan.

Azokak **jakintza adarren arabera** antolatuko dira:



Arteak eta Giza Zientziak



Zientziak



Osasun Zientziak



Gizarte eta Lege Zientziak



Ingeniaritza eta Arkitektura



SARRERA LIBREA INTERESATUTA DAUDEN PERTSONENTZAT

CAMPUSA	LEKUA	EGUNA	ORDUTEGIA
GIPUZKOA	IGNACIO M ^a BARRIOLA ERAIKINA (Ikasgelategia) Arteak eta Giza Zientzien eta Gizarte eta Lege Zientzien adarrak	2020ko URTARRILAK 25	9:00 - 14:30
	CARLOS SANTAMARIA ZENTROA (Liburutegia) Osasun Zientzien adarra		
	GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA Ingeniaritza eta Arkitekturaren, eta Zientzien adarrak		
ARABA	FARMAZIA FAKULTATEA LETREN FAKULTATEA	2020ko OTSAILAK 1	
BIZKAIA	EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (Sarriko) BIZKAIA ARETOA Osasun Zientzien adarra	2020ko OTSAILAK 8	

Standetan jaso ahal izango den informazioa:

- Graduak titulazioen eskaintza.
- Unibertsitatera sarbidea, tasak eta bekak.
- Campusean bizi: ostatua eta unibertsitaterako garraioa, liburutegia, kirol eta kultur ekintzak, eta hizkuntzak ikastea campusean.
- Mugikortasun programak.
- Graduondoko ikasketak.
- Praktikak eta enplegua.
- Etab.



Ohar garrantzitsua! Bai azoka bakoitzaren plana bai informazio-saioen tokia eta ordutegia aurrerapen nahikoarekin iragarriko dira webgunean.



Informazio gehiago:

www.ehu.eus/eu/web/sou/unibertsitate-orientaziorako-azokak

3.3. JARDUNALDI IREKIAK

Jardunaldi horien helburua da unibertsitate ikasketak 2020/2021 ikasturtean hasiko dituzten ikasleek Fakultateak eta Eskolak bisita ditzaten, beren ikasketak erabakitzen laguntzeko xedearekin.

Jardunaldi hauetan unibertsitateko ikastegiak bertako ateak zabaltzen dituzte, eta bertan eskaintzen diren titulazioei buruzko **informazio-saioak edota erakustaldiak** egiten dituzte eta instalazioetara **bisita gidatuak** antolatzen dituzte.



2. MAILAKO IKASLEAK

Batxilergoa
Goi Mailako Heziketa
Zikloak
Arte eta Kirol
Irakaskuntzak

25 urtetik eta 45 urtetik
gorakoen frogaren bidez
eta lan-esperientzia
egiaztatuz sartuko diren
ikasleak

Gradu mailako beste
ikasketa batzuk egin
nahi dituzten
unibertsitate
tituludunak

FAMILIAK: Ostiraletako eta larunbatetako jardunaldietan parte hartu ahal izango dute soilik

NAHITAEZKOA DA IZENA EMATEA 2020ko otsailaren 19tik martxoaren 1era
www.ehu.eus/iaz

2019/2020ko Jardunaldi Irekien eskaintza (ikasleriari soilik bideratua)

	GIPUZKOA		ARABA		BIZKAIA	
	GOIZEZ 10:30 - 13:00	ARRATSALDEZ 16:00 - 18:30	GOIZEZ 10:30 - 13:00	ARRATSALDEZ 16:00 - 18:30	GOIZEZ 10:30 - 13:00	ARRATSALDEZ 16:00 - 18:30
ASTELEHENA martxoak 9						
ASTEARTEA martxoak 10						
ASTEAZKENA martxoak 11						
OSTEGUNA martxoak 12						

Unibertsitateko hainbat ikastegik familiek parte hartzeko jarduerak antolatzen dituzte. Egun hauetan izango dira. Ikastegi bakoitzaren eskaintza zehatza Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko webgunean egongo da eskuragarri:

- 2020ko martxoaren 6an, arratsaldean
- 2020ko martxoaren 7an, goizean
- 2020ko martxoaren 13an, arratsaldean
- 2020ko martxoaren 14an, goizean



Informazio gehiago:
www.ehu.eus/eu/web/sou/jardunaldi-irekiak

4. UPV/EHURA SARTZEKO PROGRAMAREN EGUTEGIA

ABENDUA						
AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

URTARRILA						
AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

OTSAILA						
AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	

MARTXOA						
AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

- JARDUERA PRAKTIKOEN IZEN-EMATEA
- JARDUERA PRAKTIKOETARAKO IKASLEEN IZEN-EMATEAREN EGIAZTAPENA ORIENTATZAILIEN BIDEZ
- JARDUERA PRAKTIKOEN ZOZKETA
- JARDUERA PRAKTIKOAK (1. MAILA)
- UNIBERTSITATE ORIENTAZIORAKO AZOKAK • URTARRILAK 25: GIPUZKOA // OTSAILAK 1: ARABA // OTSAILAK 8: BIZKAIA
- JARDUNALDI IREKIEN IZEN-EMATEA
- JARDUNALDI IREKIAK (2. MAILA)
- UPV/EHU_n SARTZEKO IZEN-EMATEAREN AMAIERA

Informazio gehiago: www.ehu.eus/iaz



Unibertsitatera sartzeko informazioa

Arabako Campusa
945 01 44 44

Bizkako Campusa
946 01 55 55

Gipuzkoako Campusa
943 01 82 22

www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso

sarrera@ehu.eus